

GIPUZKOAKO ETORKIZUNERAKO IJITO ELKARTEAK AURKEZTEN DU

Miguel eta Nekane

Jjito Herria Historian **2**



Irakasleentzako gida



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
NOR GARA?	3
ZERGATIK KOMIKI BAT?	3
TESTUINGURUA	4
METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK	8
UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURAK.....	9
HELBURU OROKORRAK.....	9
HELBURU ZEHATZAK.....	9
UNITATE DIDAKTIKOAREN ETA DBHKO CURRICULUMAREN ARTEKO LOTURA.....	10
Helburuak	10
Edukiak	11
BIBLIOGRAFIA	15
ERANSKINAK	16
1.ERASKINA1: BIOGRAFIAK.....	16
2. ERANSKINA: IBILTZEKO BAIMENAK	16



NOR GARA?

Gipuzkoaren Etorbizunerako Ijito Elkarteak, gure herri identitatea sustatuz, ijitook gure burua kolektibo gisa babestuta eta ordezkaturik sentitzeko dugun beharretik sortzen da. Elkarrekin gure herriak zein gainontzeko herritarrek dituzten behar zehatzei ijito kulturaren ikuspuntutik erantzuna emateko xedea du. Hori lortzeko, honako helburuek gidatuta lan egiten dugu:

- Ijito herriaren gizarte- eta kultura-sustapena komunitate nagusiarekiko berdintasuna lortzeko, eta egungo errealitatearekiko gure ohitura eta tradizioen defentsa eta egokitzapena.
- Ijito herriarekin zerikusia duen ekintzaren bat aurreikusten duen edozein erakunde publiko edo pribatari laguntzea edota berarekin elkarlanean aritzea.
- Gure herriaren historia, kultura, tradizio eta hizkuntzaren inguruko ikerketa eta sustapena.
- Edozein arrazakeria edo bazterkeria mota deuseztatzea, justizia, aniztasuna eta askatasuna lortzeko.

ZERGATIK KOMIKI BAT?

Proiektu honen helburu nagusia ijitoen kultura eta historia jendarte osoari helaraztea da, batez ere gazteenei.

Ijito munduan lan egiten dugun hainbat eragilek egiaztatu dugu (eta hezkuntzaren alorreko hainbat ikerketak ere hala berretsi dute) ikasgeletan oso gutxitan irakasten dira talde gutxituen historia eta kultura. Ijitoen historia eta kulturaren alderdiren bat agertzen denean, modu alderdikoi eta folklorikoan egin ohi da. Horren adibide argia da flamenko musikaren aipamena: balioa handikoa den arrian, ingurune honetako ijito herriaren ondarearen zati txikia baino ez da.

Historia bezalako alorretan, eskolan erabiltzen diren testu-liburuak aztertuko bagenu, geure buruari galdetuko genioke ijito herriak iraganik ba ote duen. Ondo dakigun bezala, iragana ezagutzea funtsezkoa da oraina ulertu ahal izateko. Horregatik, zaila izango da ikasleei behar bezalako baliabideak ematea gure egungo errealitatea ulertzeko (eta horixe da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburu oinarritzako bat) ez badugu kontuan hartzen gure gizartearen osatzen duten talde guztien bilakaera historikoa.

Gure elkarteak, komikia baliatu nahi izan dugu curriculumak dituen gabezia horiei aurre egiteko, euskarri hori ezagutzak transmititzeko biderik egokiena dela uste dugulako. Bitarteko horrek irakurlearen arreta bereganatzea



lortzen du bere itxura informalarekin, irudimenari bide emanez eta lantzen diren edukiak ulertzea eta barneratzea ahalbidetuz. Gainera, komikiaren testu eta marrazki konbinaketak erraztu egiten du publiko guztiari zabaltzea. Miguel ijitoa da, Nekane ez da ijitoa, baina biak dira bigarren hezkuntzako ikasleak, eta eurak izango dira hainbat gertaera historikotan zehar gidatuko gaituztenak, hezkuntzaren alorrean ia ahazturik dagoen historiarekiko irakurlearen interesa piztuz.

Ijito herriaren historiari buruzko hainbat komiki dagoen arren, gure lana originala dela deritzogu, gure helburua ez baita izan soilik herri honen Historia (letra larriz) modu linealean erakustea, baizik eta irakurlea ijitoen errealitatera hurbiltzea eta horrekiko interesa piztea euskarri hurbil eta errazean, eguneroko gertaeretatik abiatuta, hala nola pilota partida batetik edo senide bati egindako bisitatik. Hala, bi neraberen arteko laguntasuna bezalako hurbiltasunarekin, tokikoaren eta globalaren artean mugitzen den konexio-sarea osatuz joaten da, orokorra eta xehea, Gipuzkoako ijitoen historia eta historia unibertsala.

Erabilitako hizkera lagunartekoa eta irakurlearengandik hurbilekoa izatea nahi genuen, eta horretarako, gazte-hizkerako esamoldeak sartu nahi izan ditugu. Era berean, erromaniaren eta Euskal Herriko ijitoen hitz eta esamoldeak sartu nahi izan ditugu, hizkuntza horri berreskuratu eta prestigioa eman nahian. Hizkuntzari dagokionez, ahal izan den neurrian emakumeekiko baztertzaila izan zitezkeen elementuak sartzea saihestu dugu. Oro har, testu edo marrazkien bitartez arrazista, sexista edota edozein pertsona edo kolektiborekiko baztertzaila izan zitezkeen esamolderik ez erabiltzeko ahalegin handia egin dugu, horri guztiari arreta handia ipiniz, eta gizarte aniztasunaren alderdi anitzei ikusgarritasuna ematen saiatu gara aldi berean.

Komiki honen bitartez, elkartearen helburua, material itxia ematea ez ezik, irakurlearengan interesaren hazia ereitea ere izan da. Gure ustez, komikia irakurtzen duenak bere buruari galderaren bat egitea eta hautsez betetako harietatik tiraka hastea, matazak ezkututzen dituzten hariak, bestalde, geure burua aberasteko eta aurreiritziak uxatzeko baliagarriak izango da, eta gure hondar-aletxoak ipiniko genuke horrela gizarte hobearen eraikuntzan. Urteak (mendeak!) dira ijitoen herria gizarte honen parte dela, eta honakoa herri horren iraganaren berreskurapenerako pauso txiki bat baino ez da.

TESTUINGURUA

Miguel eta Nekane. Ijito herria historian komikia testuliburuetan ia aipamenik ez duen historiarako sarbidea egiteko irakasleentzako tresna gisa sortu da. Material guztian ijitoen historia ikusgarri egin nahi da, herri zein norbanako gisa, eta horregatik, agertzen diren fikziozko pertsonaia zein historikoak ijitoak dira. Unitate didaktiko hau irakasleari komikia lantzen laguntzeko da, testuingurua emanez, hainbat alderditan sakonduz eta ikasgelan lantzeko moduko hainbat auzi nabarmenduz.



Miguel eta Nekane dira protagonistak eta Gipuzkoa da gertaeren agertoki nagusia; modu horretan, Gipuzkoako ikasleentzat lana etxekoagoa eta hurbilekoagoa izan dadin bilatu dugu. Bestalde, Gipuzkoaren Etorbizunerako Ijito Elkarreak lurralde historiko horretan sortu zen eta bertan egiten du lan, eta horregatik nahi izan dugu tokikotasun hori adierazi lan honetan.

Miguel eta Nekane. Ijito herria Historian II komikiaren helburua, hainbat atal historikoren narrazio xehea baino, eduki horien sarrera egitea da, eta, batik bat, irakurlearen jakin-mina piztea. Komikiaren bigarren atal honek ijito herriak, beste hainbat herri indoeuroparrek bezalaxe, mendeetan izandako migrazio-prozesu luzea du aztergai. Hala, oraingoan, komikiak hiru bidaia kontatzen ditu, eta horietan Miguelek eta Nekanek bidaia horietako gertaerekin lotutako abenturak lehen pertsonan biziko dituzte. Aurreko alean bezala, protagonistek haritza zahar baten enborearen bitartez egingo dute jauzi iraganeko hainbat unetara, alegia, euskal tradizioaren ikur den haritz zaharraren bidez.

Oraingoan, Miguel eta Nekane ijito familia baten bidaide izango dira Europako ekialdetik Gipuzkoarainoko migrazio-prozesuan. Ijito herriaren ibilbide hori ez zen egin bloke homogeen bakarrean, baizik eta historiako hainbat unetan eta talde autonomotan. Komikiak fikziozko osagaiak sartzea ahalbidetzen du, hala nola denboran egindako jauziak, ez baita gure asmoa zehaztasun historikoetara makurtzea, erakutsi nahi ditugun edukiak mugatuko bailituzke.

Miguel eta Nekaneren ibilbidea XV. mendearen amaieran hasten da, eta XVI.ean amaitu, eta horren guztiaren berri hainbat agiri historikoren bitartez izango dugu: agiriotan, ekialdetik Greziara iritsi berri ziren ijito familien berri ematen zaigu, erromesaldietan Boloniatik igarotzen zirenean, baita Bergaran kokatutako ijitoen berri ere, "Odol-garbiketaren estatutua" delakoaren garaian. Ale honetan, aurrekoan baino laburragoak dira historiako aroen artean eginiko denbora-jauziak.

Jarraian, komikiaren argumentua aletuko dugu, baita lan honetan jasotako hainbat alderditan sakondu ere.

Ekintzaren hasieran, Miguel agertzen da bere lehengusuarekin batera, Amara Zaharreko pilotalekuan esku-pilota partida jokatzeko; hala adierazi nahi izan dugu kirol hori oso zabaldua dagoela euskal ijitoen artean. Gainera, pasartea baliatzen da, halaber, Donostiako Amara Zaharra auzoko hiri-paisaia ezaguna erakusteko, pilotalekuaren eta Easo plazaren inguruan kokatzen baita ekintza. Aurreko alean bezala, Gipuzkoako ingurune geografiko ezagunak txertatu nahi izan ditugu kontakizunean. Miguel eta Nekane bizikletaz joango dira Arditurriko meategietara¹, eta bertan ekingo diote abentura berri bati haritz zaharraren enborra zeharkatuz: une horretan,

¹ Arditurriko meategiak Oiartzunen (Gipuzkoa) daude, Aiako Harria izeneko kareharrizko mendigune ikaragarriaren barrunbeetan. Bertako ustiapenaren berri Erromatarren Inperioaren garaitik dugu, baina meategiaren inguruan aurkitutako aztarnek adierazten dute jardura lehenago hasitakoa izan litekeela.



Veneziaren mende dagoen eta turkoen eraso etengabeak pairatzen ari den Modom² hirira joango dira, XV. mendeko Greziara.

Zenbait autoreren arabera, Fraser tartean, hiri greko horretan ijitoen asentamendu iraunkor bat zegoen³. Erromesaldien igarobide bat zenez, ijitoek praktika hori ezagutu zutelako hipotesia egin liteke. Garaiko kontakizun baten arabera⁴, ijitoak kanaberaz egituraturiko etxeetan bizi ziren, eta zapatak eta galtzada-harrizko zolak egin eta errementaritzan jarduten zuten. Hain zuzen ere, Miguelek eta Nekane seme txiki bat duen errementari-bikotea ezagutzen duenean, Miguelek ijitotzat jotzen duena, gizona errementarien lanabesekin eta emakumea hauspoaren gainean eserita ageri dira.

Miguel eta Nekane abentura kokatzen dugun garaian, Modom veneziarren mende zegoen, eta veneziarrok gudaroste turkoarekin zebiltzan borrokan. Azkenean, presio turkoak Mendebalderantz bultzatu zuen kristau mundua, eta ijito asko ere migrazio horietan mugitu ziren. Bikoteak azalduko die Pertsiatik iritsi eta han jarri direla bizitzen, Lurralde Santurako erromesaldian zihoazen pertsona askoren igarobidean. Garaia kronistek diote "barruti hori enperadore turkoak konkistatu zuela (komikian erasoaldiarekin islatu nahi izan dugu hori) eta Erromara ihes egin zutela (horrela bide eman eta hurrengo bidaia azaltzen da) gure Aita Santuarengana, beragan kontsolamendua eta laguntza aurkitzeko, eta horregatik eman zitzaizkien enperadoreari eta printzeei zuzendutako gomendiozko gutunak, ibiltzeko baimenak eta laguntza erdiesteko, beren fede kristauagatik kanporatuak izan zirenez gero...". Hurrengo kapituluak, ijito taldeek estrategia hori bere egingo dute, euren bidaietan seguruago ibili ahal izateko. Pasarte honetan, gudaroste turkoaren kontrako borroka erakusten dira, izan ere, oste hori veneziarren lurraldea konkistatzen saiatzen ari zen italiarrek Mediterraneoan zuten merkataritza-hegemoniaz jabetzeko. Kapitulu honek, era berean, Johannes Cinganusen pertsonaia aurkezteko balio digu: oste veneziarreen kargu garrantzitsu bat betetz zerbitzatu zuen ijitoa.

Kapitulu honetako funtsezko edukiak honakoak dira:

- 1.- Euskal ijitoen existentzia eta identitateen ugaritasuna.
- 2.- Ezagutza eta hausnarketa kritikoa ijito herriaren historiaren aspektu zehatzen gainean.
- 3.- Oihartzun sozial eta historiko bereziko ijitoen ezagutza.

Hurrengo kapituluak, pertsonaiak kontsulta bat egitera joango dira ijito elkarte baten egoitzara, hain zuzen ere, Gipuzkoaren Etorbizunerako Ijito Elkartearen bulegora, Donostiako Intxaurrondo auzoan kokatua. Han, Itziar ezagutuko dute, elkarteko langilea, baita Tío Jesús ere, eta berarekin ijito herriaren historiari buruz arituko dira.

² Egungo Methoni, Grezia.

³ Alexander deituriko XV. mendeko konde baten arabera, Modom hiriko muino batean, Gype izenekoan, ijitoen bizileku ziren 200 txabola inguru zeuden: *batzuek Egipto Txikia esaten zieten muino honi eta bertako txabolei.*

⁴ Op. Cit. Alexander.



Badago bineta bat garrantzi berezi duena: Miguelek ijito herriaren “jatorriarekin” lotutako komentario bat egin eta Tío Jesús barrez hasiko da, Miguel “hemengoa” dela esanez.

Iruzkin txiki horrek esangura berezia dauka, izan ere, ijito komunitatea etorkintzat jotzen da sarritan, kanpotik etorritakotzat, eta ez euskalduntzat. “Atzerritar” definizio hori ijito-fobiaren beste isla bat besterik ez da. Zentzu horretan, European ijito herriak protagonizaturiko migrazio-prozesuen historiari heltzean, ez genuen nahi sendotu ijito herriaren gaineko ikuspegia komunitate atzerritar edo kanpotik etorritako gisa. Komunitate eta herri guztiak mugitzen eta aldatzen dira historian, eta, hala, ijito herria horietako beste bat da. Hain zuzen ere, hainbat ikerketa historikoren arabera, ijito herriaren migrazio-prozesuak “azken migrazio indoeuroparra” dira.

Kapitulu honetako funtsezko edukiak honakoak dira:

- 1.- Ijito mundu asoziatiboa eta beraren lorpen eta aldarrikapenak.
- 2.- Ijito kulturaren eta historiaren zenbait aspektu.
- 3.- Ijito herriak protagonizaturiko migrazio-mugimenduak.
- 4.- Historian mugek gaiak eragindakoaren azterketa kritikoa.

Nekane eta Miguel 1422ra itzuliko dira berriz, zuhaitza magikoaren bitartez, eta Bolonia hirira helduko dira. Bertan, Modomen ezaguturiko familiarekin egingo dute topo, Andrea Dukea ijito buruzagiarekin batera Erromarako erromesaldian heldu baita Boloniara. Garaiko kroniken arabera, Andrea Dukea eta ehun bat ijito 15 egun inguru egon ziren han. Dukea Erregearen ostatuan geratu zen, eta bere jarraitzaileak, aldiz, hiri barru eta kanpoan.

Bigarren bidaia horri esker, testuinguruan jar dezakegu ijito ugarik Europako mendebalderantz (Lurralde Santurantz) buruturiko migrazio-mugimendua. Bidaia horren xedea zen ibiltzeko baimen⁵ unibertetsala lortzea garaiko botere oso garrantzitsu baten eskutik, alegia, Aita Santuarengandik. Ijito horiek erromesak zirenez, Mendebaldeko Europako printze eta erregeek adeitasunez hartzen zituzten, baina hori, batez ere, XVI. mendetik aurrera aldatu zen.

Pasarte honetan, halaber, erromesek bizimodua nola ateratzen zuten azaltzen da. Dokumentatuta ageri den lanbideetako bat atso bat iragarpenak eginez erakutsi dugu. Miguelek eta Nekane, familiarekin batera, afari lasaiaz gozatuko dute Andrea Dukearen segizioaren konpainian. Oraingoan, aukera baliatu da ijito herriaren hizkuntzari, erromintxelari, buruzko aipamena egiteko.

Hurrengo pasarteak, berriz ere gaur egun, Miguelen etxera garamatza. Beraren familia ijito kulturaren tradizionalki gehien hedaturiko ereduarekin bat dator, hau da, familia handiarekin. Hala, pasartean, Miguelen aita, ama, anaia-arrebak, amona eta aitona agertzen dira. Miguelen galdera baten ondorioz, amonak lehenengo pertsona hitz egingo du ijitoen lanaz, zehazki mahats-bilketan eginikoaz.

⁵

Ibiltzeko baimenei buruzko informazio zabalagoa 2. eransmaginean.



Kapitulu honetako funtsezko edukiak honakoak dira:

- 1.- Ijitoek historian protagonizaturiko migrazio-prozesuak.
- 2.- Erromintxela, ijito herriaren hizkuntza, eta bere antzintasuna.
- 3.- Familia nuklearraren bestelako familia-ereduak.
- 4.- Ijito historiaren eta kulturaren aspektu zehatzak.
- 5.- Ijito emakumeek historian eginiko lanbideak.

Hurrengo pasartean, Nekane eta Miguelek lehenengoaren amari Bergarara laguntzen dioten horretan, beste familia-eredu bat ageri da inplizituki, Nekaneren familia guraso bakarrekoa baita. Bidaiari, berriz egingo dute topo zuhaitza magikoarekin, eta beraren bidez XVI. mendeko Gipuzkoara joango dira, Kaparetasun eta Odol Garbiketa Estatutuak garrantzia hartzen hasi ziren garaira, hain zuzen ere. Odol-garbiketa zetzan leku jakin batean arbasoak, abizenak edota jabetzak bazituztela egiaztatzeko betebeharrean. Egiaztatu ezin zutenek bazterkeria jakin batzuk nozitzen zituzten: ezin zuten boterezko kargurik bete, ezta auzotar izaera eskuratu ere, eta, kasu askotan, Frantziako Erresumara deserriratu eta erbesteratu ere egiten zituzten, komikian erakusten dugun moduan. Horixe Gipuzkoan nahiz beste leku batzuetan gertatu zen. Gure protagonistek beren asmamen osoa erabiliko dute Tomás lagunaren kanporaketa ekiditeko, Frantziako Erresumara joatera behartu nahi baitute. Egoera hori baliatzen da orainaldiarekin lotzeko, Nekane atzeritartasun-legeak aipatzen dituen; gai hori unitate didaktikoan jorratzen da.

Kapitulu honetako funtsezko edukiak ondokoak dira:

- 1.- Familia nuklearraren bestelako familia-ereduak.
- 2.- Ijito historiaren aspektuen azterketa kritikoa, zehazki odol-garbiketaren gaiari dagokionez.
- 3.- Muga-politiken azterketa kritikoa.

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Unitate didaktiko hau lantzeko, metodologia parte-hartzailearen eta kritikoaren alde egin da. Gainera, hausnarketa-eta elkarriketa-giroa sortu nahi da, ikasleen ikaskuntza esanguratsua bultzatzeko.

Jarduerak diseinatuta daude batzuetan bakarka eta beste batzuetan kolektiboki lan egiteko, saiakera eginda ikasleek iritzi kritikoa izan dezaten azterturiko gaien gainean eta gai izan daitezten iritzi horiek eztabaidatzeko, jakinarazteko eta taldearekin partekatze, beti ere haien aurretiko ezagutzetan oinarrituta. Ahalegina egin da material honetan aipaturiko aspektu kultural eta historiko guztiak naturaltasunez eta errespetutik eta elkarren ezagutzatik jorratzeko.

Irakasleek unitate didaktiko hau garatzeko eskura dituzten baliabideak ondokoak dira: “Miguel eta Nekane. Ijito herria historian II” komikia, “Irakasleentzako gida” eta “Jardueren koaderno”.



“Jardueren koaderno”n aurkezturiko jarduerak ijito herriaren historiara eta kulturara gerturatzeko tresna dira. Komikia eduki horietarako sarrera da, eta jardueren koadernoak, berriz, hausnarketa eta elkarrizketa kritikorako mekanismoa.

Lan hau metodologia interaktibotik eta irekitik planteatzen da. Horretarako, beharrezkoa da ikasle bakoitzak, irakaslearen laguntzarekin, planteaturiko edukiak hedatu ahal izatea. Zentzu horretan, ulertzen dugu komiki honetan oinarrituta lan egiteko erabakia hartzen duten ikastetxeek beren liburutegi-funtsak jarriko dituztela ikasleen eskura, hala nola Internetarako sarbidea, ikasleak berak interesa agertu eta informazio gehiago lortzeko aukera izan dezan.

Ale honetan, eduki historikoak aurrekoan baino denbora-esparru murriztuagoan garatzen dira. Kasu honetan, iraganari dagozkion pasarteak fikziozko pertsonaia-belaunaldi biren bizi-denboran gertatzen dira, XV. mendearen bukaeraren eta XVI.aren hasieraren artean. Bestetik, jardueren gida gaikako lau bloketan dago antolatuta: migrazioak, hizkuntza, mugak eta datu historikoak.

Informazioa bilatzeko edo hausnarketa egiteko jarduerak garatzeko orduan irakasleen lana errazteko, unitate didaktiko honi bibliografia erantsi zaio, hala nola eduki historikoei, hizkuntzari edo material honetan landutako beste gai batzuei buruzko berariazko kontsulta-materiala.

UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURAK

HELBURU OROKORRAK

1. Gazteei ijito herriaren kulturaren eta historiaren aurkezpena egin.
2. Loturak ezarri ijito kulturaren eta gure arteko beste batzuen artean.
3. Kulturen arteko errespetuzko eta tolerantziatzko jarrerak sustatu eta garatu.
4. Ijito kulturari begira ditugun aurreiritziak eta estereotipoak landu.

HELBURU ZEHATZAK

1. Antzekotasunak eta aldeak bilatu ijito kulturaren baitako tradizioen eta ijito ez den kulturakoaren artean.
2. Aktiboki parte hartu gaiari buruzko elkarrizketa, hausnarketa eta bateratzeetan.
3. Ijito herriaren idatzi gabeko historia ikertu.
4. Tradizio eta kultura desberdinak balioetsi eta errespetatu.
5. Gure kulturaren baitako tradizioei eta ohiturei buruz hausnartu.
6. Historian mugen gaiak eragindakoen gainean hausnartu.



UNITATE DIDAKTIKOAREN ETA DBHKO CURRÍCULUMAREN ARTEKO LOTURA

Unitate hau tutoretzetan lantzeko diseinatuta dago, baina baita Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaien ere.

Unitatearekin lan daitezkeen helburuak eta edukiak ondokoak dira⁶:

Helburuak

1.– Fenomeno sozialak eta egitate politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harremanak zuzentzen dituzten prozesu eta mekanismoak ezagutzea, ezagutza hori baliatuta egungo jendartearen bilakaera azaltzen duen arrazoi aniztasuna eta gizon-emakumeek haietan betetzen duten papera ulertzeko, Historiaren ikuspegi zabal eta kritikoa erdiesteko helburuarekin.

2.– Denbora eta espazioan munduko eta Europaren Historiako prozesu eta gertakari garrantzitsuenak ezagutzea eta kokatzea, Gizateriaren bilakaeraren ikuspegi osoagoa eskuratzeko eta norberaren gizarte-komunitateen izaera anitzaren sorburuaren ulermena erraztuko duen interpretazioa egiteko.

3.– Taldeka atazak egitea eta egungo errealitate sozialari buruzko eztabaidetan parte hartzea, jarrera aktibo, eraikitzaile, kritiko eta tolerantarekin, talde-laneko teknikak eta gizarteratze positiboa euren gaitasunak erabiltzeko, iritziak egokitasunez arrazoituta eta elkarrizketa pertsonen eta jendartearen arazoaren konponbiderako beharrezko bide gisa baloratuta.

4.– Nork bere burua pertsona bakar eta konplexu gisa onartzea, besteei dagokienez nork bere ezaugarriak eta akatsak ezagututa, bere konplexutasunean euskal jendarteko kide gisa bereizten duten ezaugarri kulturalak baloratuta eta bateragarri eginda beste talde batzuetakoa eta oro har giza generokoa delako ustearekin, tolerantzia eta begirunezko jarrerak hartuz jendarte baten eraikuntzan aktiboki parte hartzeko modu gisa.

⁶ Proposaturiko helburu eta edukiak Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak finkatzen duen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan ezarri den martxoaren 30eko 97/2010 DEKRETUAn jasotakoetatik hautatu dira.



5.– Aniztasun kulturala herriek eta banakoek beren nortasuna izateko eskubide gisa baloratzea, norbera kide den gizarte- eta kultura-komunitateen aniztasuna horietan aktiboki parte hartzeko modu bezala beste kulturekiko tolerantzia eta errespetu jarrerak hartuta.

6.– Jendarte garaikideetan dauden arazo larrienak eta hauen sustrai historiko-sozialak aztertzea eta ezagutzea horien gainean nor bere judizio kritiko eta arrazoitua landu ahal izateko eta pertsonen eta talde sozialen arteko harremanak hobetzeko egokituriko jardunbideak sustatzea eta horiei ekitea.

7.– Ahozko informazioa, grafikoa, ikonikoa, estatistikoa eta kartografikoa zorroztasunez bilatu, hautatu eta lotzea, iturri desberdinetatik eratorritako informazioa, ingurune fisiko eta sozialak, hedabideek eta informazio eta komunikazioaren teknologiek ematen dutena barne, lortutako emaitzak gainerako pertsoneri modu antolatu eta ulergarrian jakinarazteko.

8.– Jendarte demokratikoen antolaketa-egiturak eta funtzionamendua ezagutzea, haien oinarri diren funtsezko balio eta printzipioak kontuan hartuta, hala nola eskubide eta askatasunak lorpen ukaezin eta bakerako nahitaezko baldintza gisa, berauetan partaidetza kontziente, arduratsu eta kritikoa eragiteko, jarrera eta egoera diskriminatzaile eta injustuak salatuz eta elkartasuna agertuz beren eskubideak edo beharrezko baliabide ekonomikoak zanpatuta dituzten herri, talde sozial eta pertsoneri.

Edukiak

Lehenengo zikloa. 1. Blokea. Eduki komunak.

- Aspektu geografiko, historiko, kulturei eta abarri buruzko hipotesien planteamendua, formulazioa eta egiaztapena.
- Eskuraturiko informazioa idatziz, banaka edo taldeka, lantzeko jarraibideak (laburpenen, sintesien, lan monografikoen, koadro konparatiboen, txostenen ikerketa-lan txikien eta abarren plangintza eta lanketa).
- Banakako edo taldekako lanen (monografikoak, konparatiboak, ikerketakoak, etab.) emaitzak ahoz edo idatziz jakinarazteko jarraibideak, hainbat euskarri erabiliz, besteak beste, digitala.
- Aldiak, kulturak eta zibilizazioak, gertakari historikoak, datuak eta lekuak denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak.



- Jendarte historikoen eta egungoen arteko aldeak eta antzekotasunak antzemateko, aztertze eta alderatzeko teknikak.
- Gertakari historikoen kausa-aniztasuna aztertze jarraibideak: gertakari historikoen eta bilakaera- eta aldaketa-prozesuen kausa eta ondorioen ezagutza berauek sortu zituzten faktoreekin lotuz.
- Interesa eta jakin-mina iraganeko errealitate soziala ezagutzeko eta jarrera kritikoa gertakari historikoei dagokienez.

Bigarren ikastaroa. 1. Blokea. Eduki komunak.

- Ikuspegi demografiko, historiko, kulturei eta abarri buruzko hipotesien planteamendua, formulazioa eta egiaztapena.
- Eskuraturiko informazioa idatziz, banaka edo taldeka, lantzeko jarraibideak (laburpenen, sintesien, lan monografikoen, koadro konparatiboen, txostenen ikerketa-lan txikien eta abarren plangintza eta lanketa) eta eskuraturiko emaitzak ahoz jakinarazteko.
- Jendarte historikoen eta egungoen arteko alde eta antzekotasunak antzemateko, aztertze eta alderatzeko teknikak.
- Gertakari historikoen kausa-aniztasuna aztertze jarraibideak: gertakari historikoen kausa eta ondorioen ezagutza haien izaera bereizita eta gertakari sozialetan izaten den kausa-aniztasunaren ezagutza.
- Alde kulturalak aztertze jarraibideak.
- Erdi Aroko edo Aro Modernoko aspekturen bat aztertze jarraibideak, egungo gertakari edo egoera esanguratsu batekin loturikoa.
- Interesa eta jakin-mina iraganeko errealitate soziala zein gure egungo jendartearekin duen harremana ezagutzeko, eta jarrera kritikoa gertakari historikoei dagokienez.
- Enpatia historikoaren trebakuntza eta iraganaren eta orainaldiaren arteko harremanen ezarpena.
- Adierazpen kulturalen aniztasunaren eta aberastasunaren balorazioa eta errespetua.



- Euskal Herriko aniztasun linguistikoaren eta kulturalaren barneraketa aberastasun kolektiborako faktore gisa.
- Onarpena, errespetua, empatia eta elkartasuna euskal jendartera biltzen diren beste kultura batzuetako pertsona eta taldeei dagokienez, aniztasuna aberastasun gisa baloratuta.

Hirugarren zikloa. 1. Blokea. Eduki komunak.

- Eskuraturiko informazioaren ahozko edo idatzizko jakinarazpen zuzen eta argumentatua.
- Ikerketa- edota laburpen-lan monografikoak egiteko jarraibideak, iturri desberdinetako informazioa baliatuz eta berauek zuzen aurkeztuz, hainbat adierazpide uztartuz, informazioaren teknologiek eta ikus-entzunezko bitartekoei ematen dituzten aukerak barne.
- Jarrera kritikoa garapenaren banaketa desberdinari dagokionez eta munduko pertsonen eta herri arteko desberdintasunen errefusa.
- Elkartasuna herri kaltetuenekin. Egungo munduko pertsonen eta kolektiboen eragiten dieten desberdintasun-, bidegabekeria- eta diskriminazio-egoeren ezagutza eta salaketa.

Laugarren zikloa. 1. Blokea. Eduki komunak.

- Denboran eta espazioan, gertakari eta prozesu historiko garrantzitsuen kokapena.
- Aldaketa historiko prozesuetan izaten diren faktoreak antzemateko jarraibideak, arrazoen bereizketa eta ondorioak.
- Azalpen historikoaren kausa-aniztasunaren azterketa.
- Prozesu historikoetan izaten diren osagai ekonomikoaren, sozialen, politikoen eta kulturalen ezagutza eta elkarren arteko harremanen ulermena.



- Ikerketa- edota laburpen-lanak egiteko jarraibideak, iturri desberdinetako informazioa baliatuz eta berauek zuzen aurkeztuz, hainbat adierazpide uztartuz, informazioaren teknologiek eta ikus-entzunezko bitartekoek ematen dituzten aukerak barne.
- Egoera bidegabeei begirako ikuspegi kritikoaren barnerapena eta gatazken konponketan elkarrizketaren eta bakearen bilaketaren balorazioa.
- Etorkizunaren eraikuntzan memoria historikoaren funtzioaren balorazioa.
- Interesa eta jakin-mina iraganeko errealitate soziala zein gure egungo jendartearekin duen harremana ezagutzeko, eta jarrera kritikoa gertakari historikoei dagokienez.
- Giza eskubideen balorazioa eta bidegabekeriaren, diskriminazioaren, nagusitasunaren edo genozidioaren edozein adierazpideren errefusa.



BIBLIOGRAFIA

- ACTON, T. y RUZA FORTI, R.: *Gitanos*. Espasa Calpe; Madrid, 1983
- ARÉVALO, J.C.: "Gitanos en España. El precio de una integración". En: *Doctorama*, nº11. Madrid, 1972.
- AROZENA, F.: "Los gitanos vascos." *BRSBAP*. Año 22 (1966), cuaderno 2, págs. 263-264.
- AYERBE IRIBAR, M. R.: "Las Juntas Generales Vascas en defensa de la foralidad y de los derechos históricos". En: *Ius fugit: Revista interdisciplinar de estudios histórico-jurídicos*, Nº15, 2007-2008, págs. 303-337.
- BORROW, G.: *Los gitanos en España*. Portada Editorial S.L.; Sevilla, 2001⁷
- CLÉBERT, J. -P.; ALCALDE, C.; PRATS, M. R.: *Los gitanos*. Orbis; Barcelona, 1986.
- DE VAUX DE FORLETIER, F.: *Mil años de historia de los gitanos*. Plaza y Janés; Barcelona, 1977.
- FRASER, A.: *Los gitanos*. Ariel, 2005.
- GÓMEZ ALFARO, A.: "Gitanos: la historia de un pueblo que no escribió su propia historia". En: *Los marginados en el mundo medieval y moderno*: Almería, 5 a 7 de noviembre de 1998; 200, págs. 79-88.
- IDOATE IRAGUI, F.: "Los gitanos en Navarra". En: *Príncipe de Viana*, año 10 nº37; 1949, págs. 443-474.
- KRUTWING SAGREDO, F.: "Los gitanos vascos." En: *Revista internacional de los estudios vascos = Eusko ikaskuntzaren nazioarteko aldizkaria*, vol. 31, Nº2; 1986, págs. 383-388.
- LEBLON, B.: *Los Gitanos en España. El precio y el valor de la diferencia*. Gedisa Editorial S.A.; Barcelona, 1987.
- LÓPEZ DE MENESES, A.: "La inmigración gitana en España durante el siglo XV", en MARTÍNEZ FERRANDO, *Miscelánea de Estudios dedicados a su memoria*. Anaba; Barcelona, 1968.
- MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *La Gran Redada de los gitanos en la comarca de Oarsoaldea*. En: *Oarso*, nº46. Erreterria 2011.
- ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la hidalguía guipuzcoana: el control de los judíos, conversos y extranjeros en Guipúzcoa durante el siglo XVI*. San Sebastián: Universidad de Deusto, 1995.
- REGUERA ACEDO, I.: "Todos cuatro costados de limpia de sangre: excluidos y marginados: la defensa de la hidalguía universal y de la pureza de raza". En: *Bilbao, Vitoria y San Sebastián: espacios para mercaderes, clérigos y gobernantes en el Medievo y la Modernidad*; 2005, págs. 463-504.
- SÁNCHEZ ORTEGA, M^h.: "Los gitanos españoles desde su salida de la India hasta los primeros conflictos en la península". En: *Espacio, tiempo y forma. Serie IV, Historia moderna*. Nº7, 1994, págs. 319-354.
- SORIA SESÉ, L.: "La hidalguía universal". En: *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, Nº 3, 2006, págs. 283-316.
- STURTZE, A.: *Agotak, Juduak eta Ijitoak Euskal Herrian*. Txertoa, Bilbao, 1988.
- ZIPIRAIN KARRIKA, D. y MORA AFÁN, J. C.: "Exclusión social en los siglos XVI y XVII: esclavos, judíos y portugueses en la Gipuzkoa Moderna". En: *Vasconia. Cuadernos de Historia* 24; 1996, págs. 157-192.
- <http://www.arditurri.com/antcatalogo.asp?nombre=2016&hoja=0&sesion=1>

⁷ El original es de 1841.



ERANSKINAK

1. ERASKINA 1: BIOGRAFIAK

JOHANES CÍNGANUS

Dokumentazioak diosku⁸ Grezian bazegoela talde antolatu bat buruzagi militar baten agindupean, Juan Ijitoa (Johanes Cínganus) zelakoaren mende, hain zuzen ere, Veneziako gudarosteak talde baten komandante izendatuta. Noble bati bezala, pribilegioak eskaintzen zizkieten, laguntza militarren ordainetan; izan ere, veneziarrak turkoek Grezian egiten zituzten eraso ugarien kontra borrokatzen ziren. Halaber, baliteke veneziarrek haren agindupeko ijitoak etengabeko gudek biztanlerik gabe utzitako lurak laboratzen jarriko zituelako esperantza izatea.

ANDREA IJITOA

Andrea Dukea izeneko ijito buruzagi honi buruzko dokumentazioak dio 100 ijitorekin iritsi zela Boloniara 1422ko uztailaren 18an eta 15 eguneguz egon zela bertan. Boloniako kronikaren arabera, Andrea Dukeak kontatu zuen istorioa izan zen fede kristaua bertan behera utzi zuenean (turkoen presioaren eraginez), Hungariako erregeak lurak konfiskatu zizkiola, eta berriz ere kristautasunarekin bat egin nahi izan zutenean, bera eta lau mila gizon inguru bataiatu egin zituztela, eta erregeak agindu ziela 7 urtez munduan zehar bidaiatzeko eta Erromara joateko aita santua bisitatzerako; ondoren, beraien herrialdera itzultzen utziko zieten. Boloniara iritsi zirenean, bost urte zeramatzen bidaiatzen. Gero arrastoa galdu zitzaienten, baina talde berberak agertuko dira geroago Iberiar penintsulan (agiri batean jasota dago, esaterako, 1425ean Aragoian egon zirela).

2. ERANSKINA: IBILTZEKO BAIMENAK

Zenbait historialariren (Fraser edo Sánchez Ortega, kasu) teorien arabera, batik bat XV. mendetik aurrera, ijitoek ordura arte bezain zuhur jokatzeari utzi eta talde jendetsuetan mugitzen hasiko dira Europan zehar, "Kondeak", "Dukeak", "Kapitainak" eta halako titulu arranditsuak (garai hartako maileguak) zituzten buruzagien agindupean⁹. "Erromes" bihurtuta, badirudi garaiko giro erlijiosoak eskaini zitzaizkien balizko abantailak ohartu eta estrategia bat asmatu zutela giro horri etekina ateratzeko eta, horrela, beraien biziraupen-itxaropenak areagotzeko; izan ere, garai hartan betebehartzat jotzen zen erromesak hartzea. Era berean, agintariek gomendiozko gutunak ematen zizkieten,

⁸ J. LE SAIGE: "The Gypsies in the Byzantine Empire". 156. or.; 1815

⁹ Buruzagien paperak aldaketa nabarmena izan zuen. Antza, buruzagiok ijitoaren eta ijito ez zenaren arteko bitartekari bihurtu ziren Mendebaldeko Europan.



baita ibiltzeko baimenak ere¹⁰. Baimenok ematea oso hedatuta zegoen Erdi Aroan eta, aldeak alde, esan genezake osteko pasaporteen aitzindariak izan zirela. Agiri horiek norbanako zehatz batentzat eta beraren jarraitzaileentzat idazten ziren; antza denez, ijitoek azkar asko egin zituzten kopiak¹¹.

Mendebaldeko Europara iritsi zirenetik (XV. mendearen hasieran), gutun zaharrak balioa galtzen hasi ziren, ezarrita zuten zazpi urteko epemugara hurbildu ahala. Europako agintarien gutunak ez zirenez baliagarriak izango, babes unibertsal bakarra bilatu zen: aita santuarena. Espainiako estatuan, ijitoekin loturiko agiri ezagun zaharrena 1425eko urtarrilaren 12ko ibiltzeko baimen bat da. Debozio erlijiosoaren gaia etengabea izango da euskal probintziak bereganatzeko etengabeko "ika-mikan" (euskal foru legeek egoitzarik ez izatea debekatzen zieten beraien jurisdikzioetako biztanleei), ijito-taldeak Arantzazura edo lurraldeko beste leku santu batzuetara egin baitzuten erromesaldia. Horretara bultzatu zituena fede-kontua soilik izan bazen edo bestelako arrazoirik bazegoen -esaterako, garai hartako Justizia Zibilaren gehiegikeriak zirela-eta babesa Elizan bilatzea-, guztiak dira hipotesiak.

¹⁰ Agian Lur Santurako bidean Modomen edo beste leku batzuetan ikasi zuten jokabide edo esperientzia.

¹¹ Euskal Herrian, zehazki Nafarroan, ijitoei buruzko lehenbiziko dokumentazioa Nafarroako Blanca Erreginak Thomas, Egipto Behereko Kondea, eta 50 laguneko talde bat hartu zituenekoa da.